

18. atalb.

EUJENIO AGIRRETXE

Profeta Euskal Herrian

Gipuzkoako Errezilgo baserria da Otegitxo, herrigunearen gainaldean dagoena, Hernioren magalean, aldapa bizian –“nire mendirik maiteena” deitzen du Hernio bere egunkarian–. Hantxe jaio zen Eujenio Agirretxe 1920an. Maizterrak ziren haren gurasoak. Eujenioaren bizitza eta izaera ezagutzeko iturri egokia eta zuzeneko dugu berak 75 zituela argitaraturiko *Aldi hartan eta Arantzazu aldean* liburua (1955). Autobiografiaren itxura du. “Aldi hartan bizi izan ginen gu. Eta aldi hartan egin genituen bizitza eta jarduera agertu nahi izan ditut orrialde hauetan. Baina gure burua eta gure izakera ez ziren aldi hartan gogortuta gelditu”, dio liburuaren azken kapituluaren buruan. Bihotzetik idatzitako liburua da, autokritikatik askotxo duena. Autobiografia baino gehiago bere bizitzako oroitzapenak direla esan ahal dugu, eta oroitzapenekin batera bere bizitzako aitortza, San Agustinen *Aitorkizunak* liburuaren antzekoa edo. Baina ez da meditazio eta konfesio intimista Agirretxeren liburua; harreman zabalen eta elkarlaneko proiektu askoren historia ere bada. Liburuari jarraitzea dugu biderik egokiena, hark bere bizitzako azken aldiko hogeitertan idatzitako egunkari pertsonalaren (1979-1999) testigutza ere baliatuz.

Ama, familia, eskola, eliza

Bere amaren oroitzapena eginez hasten du Agirretxek bere “autobiografia”, bederatzi urte zituela galdu baitzuen hura: “Ordu ilun hura ez dut sekulan ahaztu. Geroztik ama zenaren irudia nirekin daramat beti”. Hil aurreko hiru urtetan gaixorik ezagutu zuen ama: “Ni beti bere ondoan. Maite ninduen eta nire bihotzak ere ez zuen beste inor ama on hura baino maiteagorik”. Eta honetara amaitzen du bere liburuaren lehen kapitulua: “Gure fedezko abentura luzea gure ama, gure aita eta gure aiton-amonengandik hasi zen”. Mutiko gaztetan umezurtz geratu izanaren oinazea gogoratu izan du bere egunkarian ere.

Bederatzi senideetan azken aurrekoa izan zen Eujenio. Otegitxo baserrian eman zuen haurtzaroa: mutikoari zegozkion etxeko lanak, eskola, lagunarteko jolasak. Txikitatik ikasi zuen Hernio gailurrerako bidea, batzutan "peregrinazio" moduan gainera, kalbarioak eginez eta tontorreko gurutze ugarien artean erreztatuz. Giro guztiz kristau fedeko eta erlijiozkoa bizi izan zuen bere etxean: "Gure etxean errezo asko egin ohi zen", aitortzen digu berak: egunaren hasierakoak, eguerdiko *Angelus*-a, gabeko arrosarioa, lotarako otoitzak... Errezilgo mutikoen eskolan ikasi zuen irakurtzen eta idazten; euskararik ez, ordea. Erdalduna zuten maisua, eta euskaraz hitz egitea debekatua zeukaten eskolan –euskaraz mintzatzeagatik berak ere jasan behar izan zuen zigorrik: bazkal-tzera irten gabe, eskola barruan jarraitzera behartua, adibidez–.

Akolito edo monagilo lana ere ikasi zuen, eta parrokian jarduten zuen meza laguntzen –herriko San Antonioren ermitan ere hainbat eta hainbat meza lagundu behar izan omen zituen, bere egunkarian dioenez–. Parrokiaren inguruko jardunetan antzerkia ere egin ohi zuten, misioen egunean eta; Eujeniok ere parte hartu izan zuen horrelakoetan. Giro guztiz elizkoa eta erlijiojera zinez serioa ezagutu zituen berak etxean eta herrian. Orduko herri-misioak eta Aste santuko giroa ez ziren txantxetan jardutekoak; neskatala-mutikoak ere nekez libratzen ziren giro horretatik; eta helduekin parte hartu behar izaten zuten beren erara. Igandeko meza entzutea betebehar guztiz sakratua zen; eta gainera arratsaldeko bezperak zeuden gero igandero. Giro hori modu normalean bizi izan zuen, ordea, Eujeniok. Eta alaitasunean, azken batez.

Fraidetara Arantzazura

Bere aurreko hiru anaia zituen Eujeniok erlijioso bihurtuak: Gabino (frantziskotarra), Amadeo (pasiotarra) eta Joan Mari (jesuita). Zaharrenaren bidea aukeratu zuen berak. Anaiaz gain, Arantzazuko bestelako fraide frantziskotarrik ere ezagutu zuen berak, bai predikari elizan eta bai bere baserrian, limosna-biltzaile. Oso harrera adeitsua egiten omen zioten gurasoek etxean fraide limosnariari.

Hamaika urte betetzear zituela joan zen Arantzazuko seminariora (1931). Hiru urte eman zituen Arantzazun eta gero bi Foruan, nobizio sartu aurretik Zarautzen (1936). "Eskola gogorra, harkaitzarteko jolas eta lasterketa asko eta erdera hutsezko mila errezo", gogoratzen zituen Eujeniok Arantzazuko mutikotako urteak. Oso latzak omen ziren seminarioko hezimoldeak; horien deskripzio bizia eskaintzen du aipaturiko bere "aitorkizunak" liburuan. Baina hezimolde hura gauza izan zen "Arantzazurentzat eta bertako Ama Birjinarentzat halako maitasun eta adiskidetasun betirako bat gure bihotzetan sortarazteko". Seminarioko ikasketetan ez zen izan distiratsua; bere ikaskide L. Villasante "ikasgai guztietan oso goian" ibiltzen omen zen; bera, berriz, "oso behean"; baina ikastaro haiek denak gainditu zituen, errepikatu beharrik gabe. "Otetxo" deitzen zioten ikaskideek, beraren baserriaren izenetik; geroago sinatu ere horrela sinatuko zituen bere idazlanen batzuk.

Espainiako gerra zibilak bizitza osorako eta barrutik markaturik utzi zuen Eujenio, nahiz eta berak ez zuen fronteetan tiroka ibili beharrik izan. Zarautzera nobizio noiz sartuko zain etxean zela, piztu zen gerra hura (1936ko uztailean); aurrenik euskal milizianoak agertu omen ziren Errezil inguruan, baina laster nagusitu ziren erreketek. Horiek nagusitu eta hurrengo igandean izan omen zen Errezilgo elizan lehen aldikoz hitzaldia erdaraz. Honetara laburbiltzen du berak orduko esperientzia samina: "Aldi hartan jakin nuen gazterik: Herri desgraziatu bat bazela hemen Euskal Herri izenekoa...".

Giro horretan barne-borroka gogorra eta zalantza biziak izan zituen fraidetara sartu ala ez, nobizio joan ala ez, berak aitortzen duenez; baiezkoa erabaki zuen arte, bere "betiko bizitza arriskuan ez jartzearren". 1931ko urriaren 3an jantzi zuen frantziskotar habitua. Nobizio-urte hartan ez zuten berri handirik jakin gerran gertatzen ari zenaz; horrelako kezka eta gaiak arriskutsuak izaki, debekupean zeuzkaten. Areago, berak eraman zituen euskarazko liburuak ere kendu egin zizkioten. Gernikaren hondamendiaren berri, ordea, berehala jaso omen zuten, samin handiz. Dena dela, nobizio-urtea amaitu eta lehen profesioa egin ondoren, Herriberrira aldatu eta laster deitu zuten ejerzitorea, eta zenbait zerbitzu zibiletan

jardun behar izan zuen Iruñan. Kanpoko gerraren triskantzak ezagaturik, eta komentu barruko tirabirak, susmo txar eta debekuak zirela eta, asko sufritu izan zuten Argirretzek eta bera bezalako euskaltzale eta euskal abertzale ikasleek ondorengo urteetan – Herriberrin hiru, filosofia ikasten, eta gero lau Arantzazun, Teologiako ikasketak egiten–, Espainiako eliz hierarkiaren aldetik eta Ordena bereko arduradunen aldetik zetozkien mezu eta arauak buruzko kontzientzi arazo larriak tarteko: “Handik aurrera (...) zazpi urte Itsumendiren itzalpe isilean igaroko genituen” –metafora da noski Itsumendi hori–. Komentu barrura ere sartua zen inguruko gizarteko beldurra.

Baina zorionez konfiantzazko lagunarte ona ere sortu zuten ikaskideen artean, Euskal Herriaren zoritxarrean elkarrekin sufritud, hori “salbatzeko” ahaleginean bizitza eskaintzera elkar berotu eta adoretzen zutenak, beren “fedeari” eusteko: “isilik baina biziki euskal suari –gure fedeari– gure bihotzetan beti eutsiko geniola hitz eman genion elkarri”. Lagunarte horrek forma konkretua hartu zuen Arantzazun, aurrenik ‘Izarño’ –Agirretzek berak asmatutako izena, itxaropenezko argi-izpiaren sinbolo–, eta ondoren ‘Bai’ taldea eratzean; bere barneko aldizkari eta guzti izan zuen taldeak. Honetara definitu zuen taldea Eujeniok, beste lagunentzat idatzitako testu batean: “...gu, Euskal Herria euskaraz eta Jainkoarantz tente jartzera goazenok”. Agirretxeren izaera ameslaria eta beti aurrera begirakoa Arantzazuko teologiako urteetan lagunarte artean landu zuten espirituan nabari zen: “Euskal Herri triste eta zapalduari Arantzazutik laguntza kontsolagarria eman behar geniola amets egiten genbiltzan”. 1943ko abenduan apaiztu zen Arantzazun bertan. Ondoren 1944ko Urteberri egunean Errezilen eman zuen Meza berriaren ospakuntza egun tristetzat gogoratzen zuen Eujeniok. Ama mutikotan galdua bazuen, aita 1943ko urte horretako udaberrian galdua zuen.

Apaiztu ondoren Burgos probintziako La Aguilera herriko komentura bidali zuten Eujenio Agirretxe, Euskal Herritik urrun samar. Bertan hasi zituen herrietako bere sermoi-lanak; han emandako urtean irakurri omen zituen Santa Teresa Avilakoaren obrak ere. “Erbestaldi” hura amaitu bezain laster (1945eko udan)

Zarautzera, hasieran, eta udazkenean Arantzazura bidali zuten. Handik aurrera bizitza eta lan ia osoa Euskal Herrian eman zituen: zazpi urte Arantzazun (1945-52), eta berriro Zarautzen (1952-1958), ondoren Bilbon (1958-1959), Tolosan (1962-1964), berriro Arantzazun Teologiako ikasleen "maisu" (1964-1967), Durangon (1967-1969), berriro Bilbon (1969-1977) eta azkenik Erreterian (1977-1991) eman zituen bere urte sasoikoenak. Zahartzaroan sartuta, Zarautzen jardun zen, gogotsu eta ekintsu hamar bat urtez (1991-2000); handik aurrera hainbat gaitzek eta ospitaleko egonaldiek ezinduagorik eduki zuten, 2004ko udan Bermeoko fraideen komentu-erietxera eraman zuten arte. Hantxe hil zen 2005eko uztailaren 7an; Zarautzen dago hilobiratuta.

Idealista eta inkorformista: "Gaztedi sutarra"

Idealista zen osorik Eujenio: Gaztetan hala izan zen, eta halaxe jarraitu zuen bere bizitza osoan, beti haratagoko ametsetan bere bizitzan eta beti ekimen berriak asmatzen eta bideratzen: "Ameskabi" deitzen du Arantzazu bere idatzietako batean, bertako kanta ezaguneko hitza hartuz, eta hango Teologiako ikasle izan zeneko urteak gogoratuz. Amets egitea ez zen, ordea, harentzat zeru ederrari begira hegan egitea hutsa, eta bai lur eta gizarte honetako hobearen bilaketa zorrotz eta kezkatia ere. Inkonformista porrokatua zen gure gizona: bere buruarekiko eta inguruarekiko (gizarte nahiz Eliza, fraide bizitza nahiz pastoraltza). Etengabeko kezkatan, galdeketa eta kritikan bizi zen Eujenio: bere buruaren, jokabideen eta lanen kritika aurrenik, eta adiskidetasunez baina zorrozki galdera kritikoak ipiniz besteei ere. Honelako irizpide, jokabide, bizimolde edo lanbideren aurrean bere galdera kritikoa ipiniko zizun; eta bestelako irizpide, jokabide, bizimolde edo lanbideren aurrean ere bere galdera kritikoa ipiniko zizun. Gogaikarria ere gertatu ohi zen batzuetan, guztiari puntu kritikoa ipini behar horretan, baina beti zen interesgarria, bizitzaren eta errealitatearen sakonera bultzatzen zintuen neurrian. Izan ere, haren galdera kritikoak ez ziren kontu erretorikoa soilik eta bai barneko tentsioaren edo hobe-beharraren adierazpen zintzoa. Bazekien, bestalde, hain-

bat jenderen jatortasuna, zintzotasuna, kemena eta iraupena txalotzen, beti ere harantza bultza egiteko, jakina. Bere espiritu kritikoa ez zen ironiko eta mingarria gertatzen Eujenio; baina bazituen batzuetan bere zakarkeriak ere, bera ezagutzen ez zutenak edo lehendik konfiantzarik ez zutenak uxatzeko modukoak; bestalde adiskide leiala eta zintzoa zen oso.

Bere barne-suaz ingurua sutzeko premia zuen Agirretzek; horrela ulertzen zuen bere predikari-lana eta bere apostolutza osoa. Bere bizitzako hainbat ekimen eta proiektu berriren artean, euskal gazte fededunen (hamalau urtetik hogeita hamairu urtekoetarainokoen) mugimendu berria ere sortu eta eratu nahi izan zuen, San Frantzisko Asiskoaren zaindaritzapean. "Gaztedi sutarra" eman zion izena: "Ez duk nolana hikoia izango gaztedi hau. Sutan jaioa dela esan nahi dik, Kristoren Bihotzak zeukan su hartan"... Horrelaxe hasten da mugimenduaren oinarritzko ideario eta egitarau moduan idatzi zuen orria; "hika" zuzentzen zaie bertan euskal gazteei: "Gaztedi Sutarrak Euskal Herri hobea nahi dik".

Gazteei su horixe komunikatzera zihoazen garai hartako "Mutilen gau-ibilaldiak Arantzazura" (1952-1969 bitartekoak) eta geroago "Nesken eguneko ibilaldiak" ere bai. Eujenio bera izan zen hainbat urtetan ibilaldi haien sustatzaile -su-emaile- eta zuzendari orokor. Teologiako ikasle frantziskotar gazteen "maisu" edo ardura-dun ere izan zen Agirretxe hiru urtez (1964-1967) Arantzazun. Vatikanoko II. Kontzilioko "itxaropenaldi eta Elizaren eztegiro hartan" -beraren hitzak dira- saiatu zen fraide gazte haiek frantziskotar bizitzarako eta apaiz-apostolutzarako bihotz-berotzen eta prestatzen.

Idealismo beroak topo egiten du, ordea, sarritan errealitate hotzarekin, eta inkonformismo kritikoak, inguruko erosokeria egoskorrekin; horregatik, sufritu ere sufritzen zuen Agirretzek bere etengabeko kezka tematietan murgilduta; areago, bazuen bere depresio-joerako kontrapuntua ere. Bere fede tinkoaren indarrez eta oititzaren bidez hil ohi zuen beheraldi animiko ooren harra.

Predikaria eta misiolaria: Hitzaren indarra

Bi maitasun eta grina bizi-biziak izan zituen Eujenio Agirretxek, haren biografia osoa ehuntzen duten hari nagusiak: Jesu Kristo–Eliza eta Euskal Herria–Euskara. Biak batean bizi eta landu izan zituen berak, eta horrelaxe ageri dira beraren liburu autobiografikoan. Ebanjelioa zabaltzea eta euskara indartzea: lotuta zeuden biak Jainkoaren Erreinua Euskal Herrian eraikitzean Eujenioentzat. Herri honek eta bertoko jendeak beren nortasunari eutsi behar zioten eta jatortasunez hori garatu; horrela landutako lurrean eman zezakeen fruitua Ebanjelioaren mezuak. Bien zerbitzuan jarri zituen bere hitza eta ahotsa.

Predikari hasi zuen bere apaiz-apostolutza Gaztelako herrietan urtebetez, eta Euskal Herrira itzulita Hitzaren apostolutzari lotu zitzaion erabat ondorengo hamabost urteetan (1945-1959): Herri-misioak, bederatziturrenak, gogo-jardunak, Aste santuko predikuak, santuen panegirikoak, jai handietako sermoiak: Hego Euskal Herriko herrialde guztietan ziren ezagunak Agirretxe predikari gartsu eta gihartsuaren irudi lerdena eta ahots ozena. –Espainia aldean ere jardun zuen herri-misioak ematen: Cartajena, Sevilla eta Ecija (1957)–. Bereziki ezaguna eta miretsia zuten, ordea, Arantzazuko erromesek.

“Hitzaren indarrean eta enfasian oinarritzen zuen Eujenio bere oratoria, gorputzeko imintzio teatral eta kolpe dramatikotan baino gehiago; mezuaren giharra nabarmendu ohi zuen, literatur dotorezien aurretik. Hala ere, hitzaren beroarekin batera, bazekien jendearen gertuko adibideak eta konparazio konkretuak baliatzen. Egunean eguneko albiste deigarriren bat aldarrikatuz abiatu ohi zen sarritan, entzuleak adi-adi jartzeko. Hurbilekoa gertatzen zen, elizako goi-pulpitutik, udaletxeko balkoitik, nahiz prozesioko furgonetatik mintzatu; entzuleen tartean sentitzean inspiratu eta berotu egiten zen”. Horrela dago idatzita *Bidegileak*. Eujenio Agirretxe liburuxkan (2007).

Garai hartan ez zen trabarik falta izan gure predikari profetikoaren hitzarentzat. Gaztelatik lehen aldikoz Zarautzera iritsi orduko, aholku hau eman omen zion komentuko nagusiak: “Kontuz,

gero, politikan etzaitzezela sar!"... "Gero ere askotan errepikatu zidaten kontseilu edo agindu hori, batez ere, publikoki hitz egin behar nuen egunetan (...). Zer ote zen, bada, politikan sartzea edota ez sartzea? Makina bat buruhauste ekarri izan digun galdera eta arazoa izan da horixe", gaineratzen du berak aipaturiko bere liburuan. Zentsuraren mehatxuak etengabe jarraituko zion, bada, Frankismoaren garaian gure predikari ausartari. Behin baino gehiagotan, nonbaiteko salaketak tarteko, gotzainaren ohar zorrotzik ere izan zuen.

"Mundu Hobearen" bila

1954an Kuban eman zituen 6 bat hilabete herri-misioak predikatzen. Eujenioren kezka eta ametsak, Elizarekikoak eta munduarekikoak, ez ziren Euskal Herrira mugatzen. Beste herrialdeetako arazoak eta gorabehera sozial eta kulturalak eta munduzabaleko Elizaren dinamika barru-barrutik bizi izaten zituen berak: irakurle porrokatua zen, liburu eta aldizkari. Eta haren hizlari-dohainen berri Euskal Herritik kanpo ere zabaldua zen. Horregatik Erromara deitu zuten 1958an. 1950eko urteetan indarra hartua zuen batez ere Italian Ricardo Lombardi josulagunak sortu eta gidaturiko "Per un mondo migliore" izeneko mugimendu apostolikoak. Espainian ere irekia zuten etxe bat.

Erroma ondoko Rocca di Papa herrian eman zuen urtebete Agirretzek, mugimenduaren pentsamenduaz eta metodologiaz jabetzen. Eta berehala (1960) Segoviako La Granja herrian mugimenduak zuen "Centro de ejercitaciones por un mundo mejor" etxera bidali zuten. Bertan jardun zen hiru urtez (1959-1962) apostolutzarako jardunaldi apartekoak -Ariketak, "Esercitazioni"-, ematen eta zuzentzen, laiko nahiz apaiz kezkatuei zuzenduak. Herri-misio jendetsuei *Ariketa* ("Ejercitazio") apostoliko horiek San Ignazioen *Gogo-jardun* ("Ejercicio") espiritual klasikoen aldean bestelako gaiak zerabiltzaten, eta Ebanjelioan oinarrituriko mundu hobearen aldeko apostoluak prestatzea bilatzen zuten, norberaren sendotasun espiritualarekin batera.

Esperientzia berria izan zen hori Eujenioarentzat. *Ariketen* eduki teologikoa eta hitzaldi-estiloa ezberdinak ziren berak 15 urtez herriz herri jendetzen aurrean predikaturiko *Herri-misioetako* estilo moralista eta apokaliptikoen aldean; entzuleak ere aukeratuagoak izan ohi ziren eta. Dena dela, San Ignazioaren *Gogo-jardunak* ematen ere ohitua zegoen ordurako Eujenio: sekularrei, mojei eta fraideei. Rocca di Papa-ko ikastaroan harturiko apunteak kontuz gorde zizkigun Eujeniok. Beraren artxiboan aurkitu ahal izan ditugu, era berean, berak emandako "Mundu hoberako ariketen" apunteak ere, entzuleren batek eskuz jasoak.

Giza eskubideak eta euskaldunenak

Sentiberatasun sozial handiko gizona izan zen Eujenio Agirretxe; horren sustraiak mutikotan bertan aurki daitezke agian: familia maizter pobreakoa zen bera, eta bere ama-hizkuntzaren bazterketa ere jasan behar izan zuen eskolan. Haren predikuetan leku nabarmena izan ohi zuen zuzengabekeria sozialen salaketak eta giza-eskubideen defentsak; horixe zela eta, hain zuzen, behin baino gehiagotan buruhausterik gertatu zitzaion agintari zibilen nahiz Elizakoen aldetik, gorago aipatu dugunez, Frankismoaren diktadura garaiko zapalkuntza politiko eta sozialaren giro hartan.

Euskararen eta euskal hitzunen eta industri munduko langileen eskubideen defentsarekin batera, Euskal herriko nekazal munduko arazo sozialak jorratu zituen bereziki Eujeniok; eta nekezari arazo laboral eta sozialak eta emakume baserritaren egoera mingarria nabarmendu eta salatzeke baliatu zuen sarritan bere luma zorrotza. Aldizkari eta egunkarietako bere idatzietan landu zuen batez ere gogoeta eta kritika soziala: Bereziki baserritarrei zuzenduriko *Goiz-Argi* aldizkarian; horren zuzendari ere izan zen bera bi urtez. Lehenago *Arantzazu* aldizkariaren zuzendaria ere izana zen urtebetez. Eujenio ez zen literatur estilista handia; baina bazuen bere kazetari sena eta garra; idazkera laua, zuzenekoa eta irakurterraza zuen bere euskarazko nahiz gaztelaniazko idatzietan – horren artikulua aukeratuen bilduma argitaratuta dago, *Baserriko leihotik* izeneko liburuan (1998)–.

Argitaraturiko idatzizko produkzio ia dena euskaraz eman zuen Agirretzek: Arantzazuri buruzko bi liburuxka tartean, aipaturiko beste biez gain; pulpituko eta jendaurreko hizlaritzan, berriz, euskaraz nahiz erdaraz zen hizlari trebea eta bipila. Dena dela, hitzezko apostolutza eta batez ere idatzizko produkzio gehien-gehiena eskaldun jendeari zuzendu zion –behin baino gehiagotan eman zituen euskaraz Herri-misioak besteren batek herri berean erdaraz eman ondoren edo ematen ari zen bitartean–. Euskal fededunei euskarazko elizkizun egokiak eta predikari euskaldun ondo prestatuak eskaini beharra defendatu zuen 1956an Arantzazun egindako Euskaltzaleen Biltzar ospetsuan. Euskaltzaindiak berak antolatutako bigarren Euskaltzaleen Biltzar irekian (1963), berriz, bere hitzaldia irakurri zuen euskarazko “Gaurko hizlariak eta euskara” titulupean: “Entzule euskaldunak ez al dira bestelakoak bezain eskubidedun beren dotrina-erakusleen aurrean?”, galdetu zuen hitzaldi hartan. Horienganako “erantzunkizun txit haundia dugu guk hizlariok ere euskararen bizitza ta etorkizunari buruz. Geroak juzgatuko gaitu edo txaloka edo zigorka”. Eta honako neurriok proposatu zituen hitzaldi berean:

- 1) Eliz hizlari gehiago prestatzeko, apaizgai eta fraidegaien ikastetxeetan euskararen ikasketari bestelako hizkuntza baharrezkoenari ematen zaion leku bera ematea; 2) Hizlariak euskara “ona, ondo josia ta ikasia” erabiltzen ahalegintzea; 3) Erdaraz entzun ohi dituzten gai modernoak euskaraz ere ematea; 4) Euskal predikariei beren lana errazteko, euskarazko aldizkari berezia sortzea; 5) Kristau euskaldunen aldetik euskarazko hitzaldietara joateko “moda” sortzea; 6) Euskarazko hitzaldiak ordu egokietan ipintzea; 7) “...gaurko kultura-gai guztia euskaraz esaten lagunduko digun hiztegi bat” prestatzea Euskaltzaindiak.

Bestalde, min ematen zion baserrietako neska jator euskaldun hainbati sarritan gertatzen zitzaionak; komentura moja sartuta, erdara hutsean bizi beharrean gertatzen ziren horrelakoak eta euskara galdu edo erdi-galdu egiten zuten: “Gure herrietatik erlijioso bizitzara zihoazen gazteei, emakumezkoei batez ere, euren

euskaldungoa komentu gehienetan larrutu egiten zitzairen: moja sartzearekin batera, euskaldun izateari agur egin behar zitzaion". Horri nolabait erantzuteko Arantzazuko Amaren Misiolariak (ARAMI) taldea sortu (1962), eratu eta gidatu zuen neska fededunen elkarte sekularra, frantziskotar inspiraziokoa, Erromatik onarpen ofiziala lortu zuena, Euskal Herrian eta kulturaren barneratua eta Euskal Herriaren zerbitzurako. Ez zuen hedapen handirik lortu; baina talde txiki batek bizirik dirau oraindik. Ildo beretsutik euskal erlijioso, apaiz eta sekularren arteko urteroko "Gogoeta asteak" antolatu zituzten urte luzetan –Eujenio antolatzaileen artean beti–. Asmamen eta ekimen handiko gizona zen Agirretxe: etengabe proiektu berriak asmatzen eta sarritan bideratzen.

Vatikanoko II. Kontzilioa: bide berriak urratzen

Gure gizona barrutik ezagutzeko ezezik, berak intentsitate handiz eta modu ia dramatiko bizi izan zuen "aldi hartako" –batez ere 1930-1980 mende erdiko– euskal gizarteko eta Elizako giroa eta jokabideak ezagutzeko, eta orduan munduan eta Euskal Herrian gertaturiko aldaketa sozial eta erlijiozko handien berri jakiteko, baliagarria dira oso Agirretxeren "aitorkizunak", behin baino gehiagotan aipatua dugu *Aldi hartan* liburuan. Gure arteko giro ideologiko eta politiko itxi eta itogarri hura gainditu nahian edo, Frantziako eta Europako pentsamendu eta mugimendu filosofiko-teologiko eta sozial irekiagoez jabetzen saiatu zen Agirretxe urte haietan. Adi egon ohi zen Elizan nahiz gizartean ari ziren mugimendu eta korrante moderno eta berritzaileei buruz eta grina handiz saiatu ohi zen horietatik ikasten.

Vatikanoko II. Kontzilioaren inguruan Elizan gertaturiko "aggiornamento" mugimendu hura itxaropen handiz bizi izan zuen. "Eliza Amak nire bizi guztian eman didan pozik ederrena eta betegarriena halako batean (1962-X-11) hasi zen Vatikanoko II.a izeneko Kontzilio hura izan da. Hark bete gintuen itxaropenez eta ilusioz", aitortzen du bere liburu autobiografikoan. Garai eta gertakari erabakiorra gertatu zitzaion Eujeniori Kontzilioa bere bizitzan eta bere apostolutza-lanean. Bide-gurutzearen esperientzia

bizi behar izan zuen, egindako bide zaharra utzi beharrak dakarren minarekin eta bide berriak irekitzeko aukerak ematen duen poza-rekin. "...zenbait aldakuntza zail eta minkor jasan behar izan ditugu sasoi hartako gizonek, gure lehengo burubideak utzi eta berri batzuk, hobeak zirelakoan, aukeratzeko...", dio berak orduko garaiaz. 25 urte geroago (1990eko abenduan) honetara idatzi zuen bere egunkari pertsonalean: "Kontzilioa (Vat II) bukatu zenetik oraintxe 25 urte bete dira. Zenbat asmo eta itxaropen 'alai' orduan. Lehena eta oraina txit ez-berdin direlarik, nire adinekoek bietan ohitu behar izan dugu".

Kontzilioa amaituta (1965) eta Arantzazuko Teologiako ikasleen hezitzaile-lanak lagata (1967), metodo eta bide berriei ekiten die gure hizlariak, lehenagoko Herri-misioen metodoa agortuzat emanik -1964an predikatu zituen bere azken Herri-misioak-. Kristau talde txikien animazioari eta fededun helduen katekesi-lanari ekin zion. Hitz du orain ere bere tresna nagusia; baina bestelako entzuleei zuzendua eta bestelako erretorikaz landua. Bide horretatik jarraituko du nagusienik hurrengo hogeitabost urteetan: aurrenik Bilbon eta Bizkaian eta gero Errenterian eta Gipuzkoan. 1968 aldera "lan berri bati ekin genion lagun batzuek, bai Bizkaian eta bai Gipuzkoako zenbait alderditan. Lekuan lekuko kristau kezkatu eta gogotsuak talde txikietan bildu eta beroiekin kristau fedea sakondu eta konprometigarri bihurtuko zuen elkarteak han hemenka sortarazten hasi ginen".

Apostolutza-lan modu apalagoa zen hori, garai bateko jendetzen aurreko hitzaldi distiratsuen bano; baina baita sakonagoa ere. Eta Eujenio bera, damaturik eta erdi lotsatuta ere ageri da bere "aitorkizunetan", Kontzilio aurreko Herri-misioetako hitzaldi modu eta metodo pastoral haiekin. Kontzilioaren bide-gurutzean apaiz eta fraide askotxok sufritu behar izan zuen, aire berrietara egokitzeke. Eujeniok pozik eta esperantzaz bizi izan zuen batetik aldaketa hura, baina baita aurreko pastoraltza-modu "arrakastatsu" hari uko egin beharraren minez ere.

Frantziskotar anaiartean

Zarauzko nobizio-urtea egitera joan ala ez zalantza handitan ibili zen Eujenio 1936ko udako oporraldi hartan. Baina behin frantziskotar bizitzari helduta, ez zen sekula damutu erabaki horretaz, eta maite zuen San Frantzisko eta hark erakutsitako bizibidea. Fraideen arteko bilera eta ospakizunetan parte hartu zalea zen. Komentutik kanpo apostolutza-lanean ibiltzea tokatu zitzaion ia etengabe bere bizitza osoan, baina pozik itzultzen zen fraideen elkartera, eta bertan berriro ondo egokitzen eta girotzen.

Asis eta San Frantziskoren santutegiak aspalditik bisitatuak zituen arren, Probintziako fraide talde handi batekin egin nahi izan zuen peregrinazio berezia santutegi haietara urte askotxo zituela, 1990eko udazkenean. Emozio handiz laburbiltzen digu bere egunkari pertsonalean orduko esperientzia: "Gorputza asko nekatu zitzaidan, baina espiritu aldea bai aberastu. Ezin inoiz ahaztuko Alberna mendian izandako bizipena. Eta gero Asisen S. Frantzisko bertan sentitu nuen. Hala batez ere Potziunkulako ermitatxoaren barne eta inguruan. (...) San Damianeko etxe eta elizatxoaren maitagarritasun hura. Han otoitza berez irteten zaizu bihotzetik. (...) Fonte Colombo, Greccio... leku haiek, txoko haiek bihotz barru guzia dantzan jarri zidaten. Eskerrik asko, Jauna! (...) Asisko irudi hura ez dut sekulan ahaztuko: San Frantzisko eta lepradunaren arteko besarkadarena, alegia. Erromeskideen anaitasuna ere ederra eta benetakoa izan zen".

Eujenio ez zen fraide "komentualetakoa" izan, komentuko hormen barruan itxita bizitzekoa, komentutik kanpo ibiltzen baitzen gehienbat bere predikazio eta apostolutza-lanetan. Areago, aparteko "komentualismo" itxiaren kontrakoa zen, eta fraide frantziskotarrak herritik hurbil eta gizartearen erdian bizi behar zuela uste zuen. Arantzazun Teologiako ikasleen arduradun egon zen hiru urteetan –Kontzilioaren garaiak izan haiek, 1964-1967!– fraide gazteak bide horretatik gidatzen saiatu zen. Eta hango ardurak utzita, berak bultzatu zituen hainbat fraide gazte anaiarte txikitan eta ingurune sozial apaletan bizitzera, bestelako langileekin batera fabriketan edo eraikuntzan lan eginez; berak sustatu eta gidatu

zituen garai hartan Eibarren eta Bilboko Errekalden eraturiko horrelako bi anaiarte txikiak, adibidez.

Atsekaberik eta porrotaren mingoztasunik ere ekarri zioten, ekarri, esperientzia berri haiek; baina ez zen erre eta ez zuen atzera jo. Handik urte batzuetara berak pertsonalki sortu eta antolatu nahi izan zuen beste fraide lagun batzuekin Erretereriako Zamalbideko anaiarte txikia, aldi berean nekazal eta industri ingurunean kokatua: "Anaidi txiki, apal eta zerbitzari bat osotzeko asmoz", paper batean berak idatzia utzi zuenez. Inguruko gizartearekin harreman eta lankidetza estuan eman zituen ia hamabost urte bizimodu hartan. Bere ase ezinean eta anaiarteko zenbait gorabehera tarteko, gazi-gozoa, sarritan oso mingarria gertatu zitzaion urte haietako bizialdia, depresioak jota batzuetan. Handik urte batzuetara bisitan joan zitzaion eta "hango gure presentzia hura bai izan zela mesedegarria" esan zionari honetara agertu zion aspalditxotik bere baitan zeraman kezka: "Ez ote genituen gure bizitzako urte eder askotxo alferrik galdu?". Baina berehala, eta zalantzaren har hura baztertu nahian, honetara jarraitu zuen egun hartako egunkaria: "Ez eta ez! Han bezala non bizi izan dut pobretasuna, pobreen artean bizitzea, Nazareteko apaltasuna!... Eta fraide lagun askorengandik ikusi eta jaso genuen mespretxua?".

Han eta hemengo fraide-komunitateei hamaikatxo gogojardunaldi eta erretiro-egun zuzendu zien Agirretzek; baina laikoan artean saiatu zen batez ere frantziskotar espiritua eta biziera zabaltzen, frantziskotar laikoan ("Hirugarrendarren") ordena Euskal Herrian eta herrietan suspertuz eta gidatuz. Gazte-gaztetan izendatu zuen Frantziskotar Probintziak Hirugarrendarren asistente: Gipuzkoakoa gaurerik eta Hego Euskal Herri osokoa laster – Autorearen izenik ez baldin badarama ere, seguruenik Agirretzek euskaratua da *Frantziskotar Ordena Sekularren Bizi-bidea* (Arantzazu, 1979), Paulo VI. Aita santuak onartua (1978)–. Bere bizitzako azken urteetan ere hurbil-hurbildik lagundu nahi izan zien Zarauzko frantziskotar laikoari beren fede-bidean (1992-2004). Honetara idatzi zuen bere egunkari pertsonalean (1991-12-21), Zamalbidetik Zarautzera aldatu berria zelarik: "Orain ni neu zahartzaroan sartuta. Ez dut uste urte asko biziko naizenik. Eta hemendik

ezkutatu baino lehen gauzatxo batzuk egin nahi nituzke: Hirugarren Adineko sailetan Kristau Mugimendu bat bultza, gure Frantziskotar Sekularrei laguntza berri batzuk eskaini...”.

1998ko martxoaren 8an F.O.S.ek bere Kontseilua aukeratzeko bilera egin zuen Arantzazun; hantxe izan zen Agirretxe. Hona egun horretako bere egunkarian aitortzen diguna:

“Agirretxek utziz gero, gure Hirugarren Ordena zaharrak ez duela bizirik iraungo, esan du oraindik orain gure komentu bateko guardianoak. A, zer animoa dagoen gure artean! Gure utzikeriaren erruz, hainbeste baliozko gauza eder fraideok galdu ditugu!”.

“Goia jo nahi eta beheko zuloraino aldika erori”

Eujenioren hitzak dira horiek, bere egunkarian idatzita utzi zituenak, beraren psikologia nahikoa ondo adierazten dutenak. Bere ametsak (gizarteari, Euskal Herriari, Elizari eta frantziskotar anaiarteari) buruzkoak motz geratzen zirela ikusi behar izaten zuen sarritan Eujeniok. Horrelakoetan beheraldi psikikoan eta pesimismoan erortzeko joera ere bazuen; ondo jabetuta zegoen bera horretaz; eta asko sufritzen zuen. Bere depresio-egoera edo beheraldiok aitortuz eta nolabait analizatuz testu eta aitortza mindu askotxo ditu Eujeniok hamabost urte luzetan idatzi zuen bere egunkarian: “Nire tristurak gaitz psikiko batetik datozkit: Depresio handitxo daramat aspalditxotik. Hala agertu dit nere lagun Karlosek ere”... “Nire lainoaldiek luze zabal eta beltz jarraitzen dute”... “Izugarrizko depresioaldi beltzean bukatzen dut Urria”, idatzi zuen 1989ko urriaren 31an... Eta “noizbaitetan izandako poz eta ‘ilusio’ handi hartara itzuli nahi dut”, beste behin.

Larrialdiok gainditzen saiatzen zen, hala ere, adiskideengana joz edo bere burua nolabait analizatu eta egoera arrazionalizatuz: “Nik gauza eta gertakizunen alderdi positiboak ikusten eta estimatzen ikasi behar dut” idatzi zuen beste behin; eta “nire pentsamenduak gehienetan ezkor izateko joera izan ohi dudala, badakit”. Baina adiskideen aholku onez eta bestelako baliabide psikologikoen gainetik, etengabe zeukan bere bihotzean eta ahotan

Agirretzek otoitzaren baliabidea: "Zure eskuetan uzten dut neure espiritua" behin eta berriro ateratzen zaio barrutik bere egunkari pertsonalean. Batzuetan gogarte-etxeren batera ere joan ohi zen zenbait egunetarako, bakarrik egon eta otoitz egitera. Horrelako erretiroek on handia egiten ziotela aitortu ohi zuen.

Beheraldia eta ilunaldiaren ostean, argialdia etortzen zitzaion, bizinahiarekin batera; poza eta lasaitua agertzen zuen orduan bere egunkarian: "Eta nire lehengo depresioaldi haiek, non dira? Gaitz hartatik ongi sendatu naizela uste dut (...) Aldi hartan (aldi luze hartan) ni bi alderdiko gizona nintzen. Dikotomikoa eta nahiko eskizofrenikoa (espiritu aldetik behintzat)". Dena dela, handik urte t'erdira kexaturik zebilen berriro ere bere depresio-aldi berriarekin. Bere bizitzako azken urteetan batez ere aldikako gurutze latza eraman zuen alde horretatik.

Baina bere barneko oinaze eta beheraldien artean ere besteen oinaze, gaitz eta heriotz-saminarekin bat egiten asmatu ohi zuen Eujeniok. Gaixoak bisitatu zalea zen, batez ere bere heldu-aroan; igande arratsalde batean "Manuel Lekuona apaiza, Migeltxo subnormala, Tellaetxearen aita, Kasto fraidea, Anizeto Zugasti apaiza, Sukia apaiz eta besteren batzuk" bisitatu zituen. Bisita ugari, baina laburrak: gaixoen bisitak laburrak izan behar zutela esaten baitzuen berak sarritan, haiek inola ere ez nekarazteko. Hamaikatxo bider ageri da beraren egunkarian adiskide gaixoen eta heriotzen berri. Adiskide eta ezagunen gaixoaldi eta heriotzak bere elkartasuna agertzeko zituen bezala, bere bizitzarako seinaleztat ere ulertu ohi zituen; A. Benito Mendia, frantziskotarren ministro probintzial izandakoa, bat-batean hil zen bihotzekoak jota, 1983ko otsailaren 1ean. Honela idatzi zuen berak bere egunkarian: "Zirrara zorrotza sartu zait bihotzean, albiste hori entzutean. Gertaera hauen bidez, Jainko Aita deiadarka ari zaidala pentsatzen nago, behin betikoz onbideratu nadin".

Erretzaile ere izan zen Eujenio urte luzetan; ahaleginak egin ere bai erretzeari uzteko; baina nekeza gertatu zitzaion: asmo onak hartu eta hainbat hilabetetan iraun ere bai erre gabe agian, baina gero berriro zigarroari heldu. Azkenean, 1987ko otsailean idatzi zuen bere egunkarian: "Hamar edo hilabete badira, tabakoa

erretzea guztiz utzi nuenetik. Hori dela eta pozik nago". Badirudi gerora erre gabe iraun zuela. Sufrimendu psikikoak ez ezik, moralik ere bizi izan zuen Agirretxek. Behin baino gehiagotan kexatu zen berak etxetik bertatik eta gero jaso izandako moral-heziketa estuegiagatik, batez ere afektibitatearen alorrean. Eujenio gehienetan ematen zuen urruneko profeta-itxura kontuan izanik, bazirudien bihotzeko arazo afektibo guztien gainetik egon behar zuela; eta, egia esan, bere kастitate-botoa pozik bizi izan zuela esan ahal dugu. Baina horren barruan ez zuen jakin nonbait oreka onean asumitzen bere bizitzan agertu eta luzatu zitzaion emakume jakin batenganako adiskidetasuna, eta ihesean edo ibiltzera behartu zuen bere burua. Honela aitortzen du bere egunkarian (1990-12-14):

"Eta gaur beste artean agur bat gertatu zait. Aspaldiko urte haietan nirekiko maitemindua izan zen Pakita hura. Ez dut sekulan ahaztuko. Gure orduko elkar-maitasunaren martxa hura patxadan eramaten ez genuen asmatu ez batak eta ez besteak. Beti urduri bera eta beti urduri ni ere. Antzinako moral estu eta debekakor eta ezkor haren ikasle eta esklabu bait ginen biok. Zenbat sufritu duen horregatik gaixoak! Sentsibilitate bizi-bizikoa zen alde batetik, oso kezkaeraza bestetik eta kontzientziako lasaitasunik behin ere ez...

Atzo arratsaldez ikusi dut azkenengo aldiz nire Pakita maitea, Donostiako Hospialera minez ekarria. Elkarrekin otoitzxo bat egin genuen. Nik askotan aspalditxotik erakusten nion hura: "Aita, zure eskuetan uzten dut nere espiritua". Gero musu bat eman nion bekokian eta "agur, Pakita" esanik utzi nuen. Bihar Zarautzen bere hileta ospatzera joango naiz. Eta hitzalditxo bat ere egingo dut... Hitzak malkoz bustitakoak izango ote diren beldur naiz".

1993an bete zituen bere apaizgintzako 50 urteak; eta Donostiako Elizbarrutiak horrelakoentzat antolaturiko jaietan hartu zuen parte. Egun hartan idatzitakoak laburbiltzen du nolabait Eujenioaren izaera autokritiko, kezkatu eta nolabait kontradiktorioa, bere aitoren gordinean: "Eta han izan naiz ni ere aurtan 50 urte

apaiz ordenatu nintzelako. Arantzazun, 1943, Abenduaren 28an. Handik hona zenbat gorabehera. Gorabeherak: horixe izan bait da nire bizitza. Goia jo nahi eta beheko zuloraino aldika erori. Eskerrak, Jauna, eta barka oker egin dudan guztia, asko izan bada ere!”.

Bizitzaren udazkena: gaitz-heriotzen aurrean

Hirurogeita bost urte bete zituelarik (1985) oso jabeturik zegoen “hirugarren adinean” –“bizitzaren udazkenean”, berak esan ohi zuenez– sartua zela; baina ez du bizitzeko eta lana egiteko kemenik eta grinarik galtzen: “Ahaleginak lanean aurrera jarraitzeko egingo ditut. Baina nire mugatasunak nabarmen agertzen dira eta hala bizitzaren udazkenaldia gogo onez Jainko Aitaren eskutik eramaten ahaleginduko naiz”. Bere betiko lan eta harreman apostolikoetan jarraitu zuen, batzuetan erritmo eutsian gainera – 1988ko Garizuman egunero izan zuen hitzaldiren bat–; eta lan-modu berriak ere bilatu zuen hirugarren adinekoentzako pastoraltzan.

Lehenagotik, 1982tik hasita, ebakuntza eta gaisotasunei egin behar izan zien aurre. Aspalditik zekarren berak sinusitis gogaikarriaren zama. Baina urte hartan prostatako handitua agertu zitzaion. Honela dio bere egunkarian (1982-XI-05): “Noizbait sendaetxeko mahai batetan etzango naute eta –minak min– hor dagoen handidura hori kendu egin beharko didate. Zer gertatuko den ez dakit. Aita, zure eskuetan uzten dut neure bizia eta etorkizuna”. 1983ko maiatzaren 23an operatu zuten; bezperan berak uste baino lasaiago omen zegoen; operazio ondorengo susperraldia, ordea, luzea eta nekeza gertatu zitzaion.

1992an Zamalbideko anaiarte txikia itxi egin zuten, eta Eujenio Zarauzko komentura aldatu zen bizitzera. Penaz utzi zuen anaiarte hura, 14 urte luzez bizi izandako hango esperientzia gazi-goza –“nigarrak eta penak” ere bai tartean–, hura indartzeko fraide gazterik ez omen zegoelako; baina pozik, bestalde, bizimodu berriari heltzeko Zarauzko komentuan, “oraingo hau bizitzaren azkenengo puska dudala gogoratu”, bere egunkarian idatzi zuenez (1991-12-22). Zamalbiden baino lasaiagoa izan zuen, izan, bizitza

Zarautzen, baina ez zuen lanerako bere grina galdu. Ganorarik gabeko eguna “egun ustela” edo eginkizun pastoral berezirik gabeko igandea “igande ustela” deitu ohi zuen. Garai horretan burutu zuen bere *Aldi hartan* liburua; bere oroitzapenak jasoz eta aitorkizunak aitortuz. Aldi berean, bere zahartzaroa duintasun handiz betetzen saiatu zen ondorengo urteetan, hirugarren adin-aldia hobeto bizitzeko hainbat ikastalditan parte hartuz eta hitzaldiak emanez ere bai.

Osasuna makalduz joan zitzaion –depresio-aldirik ere bai berriro–. Beste fraide gaixo baten egoera ikusita, beldurra ere ageri du ohean luzaroan gaixorik gelditzearen aurrean, gau eta eguneko ordu asko bakardadean igarotzeari begira: “Ni neroni hala noizbait aurkituko ote naiz? Izugarri litzaidake horixe”. Baina betiko otoitzarekin ahalegintzen da uxatzen beldurra: “Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!”.

1995ean, 75 urte betetzear, igo zen azken aldiz Hernio mendira, bakarrik, bizitzako oroitzapen guztiak berrituz edo. Honela kontatzen du menditik beherakoa: “Eta agur esan diot Hernio maiteari. Gurutze zaharrari musu maitetsu bat eman diot eta –neke-neke eginda– *Magnificat* errezatuz pausoka jaitsi naiz Zelatun aldera. Gorpuz ahula neukan benetan. Eta Iturriozko ermitara heldu orduko lurrera jausi naiz. Egun honek zer pentsatu franko jarri dit bihotz eta buruan. Lehengo oroitzapenak alde batetik eta bizitzaren udazkenak dakartzan gogorakizunak bestetik. Eta bihotzetik otoitzo honek irten dit: ‘Aita, zure eskuetan uzten dut nire bizia!’. Ez dut uste gehiagotan Herniora igoko naizenik. Agur eta agur!”

Heriotzaren aurrean: “Gure Aita...”

Izan ere, fede-aitorpenean eta otoitzean aurkitu ohi zuen bere ilunaldi animiko eta bere larrialdi fisikoetatik nolabait ateratzeko indarra; eta benetan lasaitua hartzen omen zuen “Aita, zure eskuetan uzte dut neure espiritua” otoitz xumea esanez.

Jardun betean eta etengabeko ekimen berriak aurrera eramaten bizi izandako gure Eujenio fede eta otoitz-gizona zen oso:

otoitz-egile, otoitz-erakusle eta otoitz-eragile. Argitaratu gabe baina aski landuta utzi zituen bere liburuen (edo liburu-gaien) artean badu otoitz-meditazioen sorta bat eta "Santutasun bila" izeneko beste bat. Are adierazgarriagoa da, ordea, urte luzetan landu zuen eta argitaratzeko prest utzi zuen beste liburua: "Gure Aita", Jesusek erakutsitako otoitzari buruzko iruzkina. "*Aita gurearen* perifrasiak bukatu dut", idatzi zuen lasaiturik 1999ko azaroaren 17an bere egunkarian.

1998ko abuztu-irailak oso larriak izan zituen; ospitalean ibili behar izan zuen; orduan aurkitu zioten heste lodiko minbizia. Larritasunez bizi izan zuen orduko gaitzaldia –egun horietako egunkariko idazkeran guztiz urduri dagoela dirudi–, baina otoitza dario etengabe ezpainetatik. Honetara dio bere irailaren 16an: "Erori da notizia: heste lodian minbizia daukat. Agur gauza askori (...) Heriotza bera ere oraintsutik bertarago ikusten dut". Orduetik aurrera benetan bere biziera aldatu egingo zitzaioela ikusi zuen, batez ere bizitzako lan-erritmoa moteldu beharra; urriaren 7an honela idatzi zuen otoitzean: "Aita: nire bizikera guztiz aldatua ikusten [dut]. Lan asko utzi eta kontenplarien bidea eta bizitza hartu behar. Horretantxe asma dezadan lagun egidazu".

Eta lanak uztearekin batera, bere gelan pilaturiko gauzak, urriak izanik ere, eskutik utzi beharra. 1999ko apirilaren 29an idatzi zuen honako hau: "Badator Ordu Handia... Bertan xamar sumatzen dut. Eta orain zertarako neure gelatxoan horrenbeste arropa, horrenbeste gauza eta gauzatxo. Kosta ala kosta, gauzadi honekiko desatxikidura egin behar dut. Gauzak pilatzeko ona izan naiz. Orain bota edo eman egin behar. Zeruko Aita ona, lagun egidazu lan horretan. Egin dezadan agudo. Ordu Handia badator". Ondo pobre eta xumea aurkitu nuen nik haren gela, bere sermoiak eta bestelako paperak jasotzeko deitu ninduenean.

Otoitz eta sublimazio eta guzti, Eujenio ez zen gaixo erraza. Psikologikoki beherantz egiteko joeraz gain, bere barru kezkatia ateratzen zitzaion sarritan, eta urduritasuna eta lasaitasunik eza. Baina azken batean fedea eta otoitza gaintzen zitzaaien nolabait ahultasun fisiko eta psikikoei, eta barruko egonezinari. Eta esker

ona agertzen zion bihotzez zaintzera edo lagun egitera joana zitzaionari.

Neure esperientzia pertsonal bat hona ekartzea zilegi bekit. 2004ko azaroaren 28an Bilboko klinika batean zegoen Eujenio. Gaua berarekin emateko zoria –zori ona!– izan nuen. Gau oso txarra eman zuen gaixoak: urduri eta larri, egonezinean, behin eta berriro ohetik irten beharrean. Eta ni hura lasaitu nahian, eta ohean eusteko ahaleginean. Gaixoaren barealditxoetan idazten jardun nintzen –orri askotxo ditut gau hartan idatziak: gau hartako bizipenak eta gogoetak–. Halako batean, eta neure mahaitxoan ari nintzela, erdi eseri erdi zutitu egin zen ohe gainean Eujenio, eta besoak gora eta bere indar apurrak kanpora atereaz, “Gure Aita” errezatu zuen ahots ozenez eta goraki, hasieratik amaieraraino. Amaitu zuenean, ohera erori zen luze berriro, lasaitu ederra hartuta edo. Geroago Bermeoko fraideen erietxean bisitatu nuenean, lasaiago zegoen, baina motelduta, eta irribarrerik gabe. Handik hilabete gutxira hil zen erietxe berean, 2005eko uztailaren zazpian, San Fermin egunean.

Euskal Herriko XX. mendearen bigarren aldiko profeta izan genuen Agirretxe, Herri eta gizarte honen oinazeak eta gaitzak salatzearekin batera, horien itxaropenak suspertzen saiatu zena, beti Ebanjelioa eskuetan eta ahotsean. Azken honi dagokionez, pasadizo esanguratsua kontatzen digu bere egunkarian: Bileretan, otoitzaldietan eta hitzaldiak prestatzean urte luzetan esku artean erabilitako *Itun Berria* liburua higatua eta xahartua omen zeukan; zaborrontzira bota nahi ez eta, Zarautz eta Getaria tarteko itsasertzeko harkaitzetara joan zen, bere liburu maitea eskuetan; arroketa zutik, muin eman zion liburuari, lau zatitan zatitu, eta itsasoko uretara jaurti zuen. Hantxe egon omen zen orrien dantzari begira. Horrelako keinu profetikoaren zale ere bazen Eujenio.

Eta Euskal Herrirako profetak eskatuz amaitu zuen bere egunkaria... Herri honen bakerik ezak bereziki mintzen eta erretzen zuen barrutik; azken urteetako kezka sozial nagusietakoa horixe zuen agian, elkarrizketetan, hitzaldietan eta bileretan ateratzen zitzaiona. 2001eko lehen egunekoa da guri iritsi zaigun haren egunkari pertsonalaren azken orria. Guztiz adierazgarriak horko

azken hitzak: "Bake hitza erruz erabili, baina E.ren [Euskadiren?] ondoeza politikatik datorrela ezin aitortu. Herri gainerik pasa egiten. Elkarrizketari nondik eta nola heldu... ez dugu esaten. Profetazgo handi baten premi-premian gaude".

Paulo Agirrebaltzategi